

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info



Igandea, 2011ko martxoaren 6a. VIII. urtea. 2.187. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)



Gettoki kalean hasten dute haurrek euren kalejira eta Aiz-Orratz elkartearen parean bukatu, Trianguloan geldialdia egin eta gero. Jende asko hurbildu zen Haur Danborrada ikustera. LGARCIA

## Iritsi da danborren burrunba

Inauterietako ekitaldi jendetsuenetakoa izan zen atzokoa, Danborrada, hain zuzen. Lehenengo haurrak irten ziren danborrak astintzera eta iluntzean izan zen helduen txanda

Gaurkoa herritar guztien eguna da; karrozek eta konpartsek lehen kalejira egingo dute eta partaideen sormenarekin harritura geratzeko parada izango da 4-5

**Inauterietako Argazki lehiaketa**

- Saria: Denak tabernan 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali: [argazkiak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko-hitza.info) harpidedun kodea jarri behar da mezuan, harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 9a bitartean.
- Sariduna: Martxoak 15eko alean argitaratuko dugu.



Parte hartuko dufen argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info) webgunean!

tonbola ibiltaria

TOLOSA  
ostegunetik  
asteartera  
Laskoain kalean  
San Frantzisko  
pasealekuaren alboan

euskaraz  
kik!



Komikia ◦

Nando



↓ Gaurko egitaraua, Zaldunita

UDALAREN EGITARAUA

- 08:00etan. Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- 08:45ean. Herriko txistulari bandak Inauterietako Zortzikoa joko du.
- 10:00etan. Txarangen irteera.
- 11:00etan. Plaza Berrian sokamuturra Alcoyanok alaituta.
- 11:00etan. Karroza eta konpartsen irteera.
- 15:45ean. Udal Txistulari Bandak *Idiarena* pieza joko du.
- 16:00etan. Kalejira Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalde txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen plazaraino.
- 16:30ean. Zezenak zezen-plazan; txaranga eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren, kalejira.
- 19:00etan. Dantzaldia Berdura Plazan Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalderekin.
- 23:30ean. Jones Brothers eta Oriako txaranga kalez kale.

TXOSNA GUNEA

- 15:00. Txosnen irekiera. Giroa alaituz Bonberenea txaranga.
- 22:00. Segoviako Ihesa, Jostion eta Laketen kontzertuak.

Lore Iturrioz • Inauterizalea

# «Urtero mozorrotzen naiz, mozorrorik gabe ez dago festarik»

Rebeka Calvo

Lore Iturriozek (Tolosa, 1981) Inauterietako izaera herrikoia nabarmendu du. Jai egun hauek kalean bizitzekoak direla uste du eta argi du txarangen doinurik gabe Tolosako Inauteriak ez zirela direna izango. Dagoeneko sartu da Inauterietako zurrunbiloan eta seguru, urtero bezala, kalean emango dituela jaietako egun gehienak.

Zer dira zuretzat Inauteriak?

Urteko egunik onenak. Festa herrikoia izateak, bakoitza bere aletxoa jartzera bultzatzen du. Guztia atzean utzi, deskonektatu, lotsak eta aurreiritziak etxean utzi eta ileorde zahar bat nahikoa izaten da ondo pasatzeko.

Zernabarmendukozenuke?

Txarangarik gabe ez litzateke Tolosa izango, hemen ia astebururo izaten ditugu txaranga. Meritu ederra dute hainbeste egunetan



HITZA

↓ Tragoxka batean

- Txaranga doinu bat. Sasikoipatsu, Ostegun Gizeneko doinua.
- Egun bat. Igandea.
- Gaua ala eguna. Eguna, eta gero gaua (kar, kar, kar).
- Kalea edo taberna zuloa. Kalea, noski.
- Mozorro bat. Orain urte batzuk Arale marrazki bizidunetaz atera ginen eta mozorro horrekin geratzen naiz.

izaten da niretzat eta eguna luzea denez, nahiago izaten dut eguerdian atera. Izango dugu horretarako denbora.

Gustuko al duzu mozorrotzea?

Bai, urtero mozorrotzen naiz. Mozorrorik gabe ez dago festarik. Urtero bezala azken momentuko inprobisazioa izaten da gure mozorroa, baina garrantzitsua ileordea izaten da, nortasuna ematen dio ileordeak mozorroa-

ri. Gainera, ileordea eta betaurreko handi batzuekin ezagutzea kostatzen da eta hori da politena.

Ba al dago urte hauetan atentzioa eman dizun mozorrorik?

Egia esan, urtero jendeen ideiekin haluzinatuta egiten dut. Hau irudimena! Duela urte batzuk tolosar batzuk TSST autobus geltokian zain zeuden pertsonaiaz atera zireneko gogoratzen dut. Oso ona iruditzen zitzaidan, ikasle bat unibertsitatera zihoana, haurdun zegoen emakumea, hondartzara zihoan bikotea, amona xebrer bat... Ideia oso ona.

Nolakoak dira Inauteri aurreko egunak?

Emozioz beterikoak, Kaldererok ematen die hasiera Inauteriei eta primeran ibili gara, jende pila bat zebilen eta giroa oso ona.

Eta Inauterietako egunak?

Oso onak. %100 ematen saiatzen naiz egunero eta asteardean horrelaxe bukatu ohi dut, baina tira, merezi du.

Txarangazalea al zara? Zezen-plazatik behera saltoka joaten diren horietakoa al zara?

Txarangaren atzetik ibiltzea gustatzen zait, baina Alde Zaharrean tokatzen denean saltoka sartzen den horietakoa naiz.

Inauterizale petoa zarela esan al daiteke, hortzat.

Bai, eta urtetik urtera hobeto pasa ohi dut.

**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.R. INSTITUTUA

**FORMAZIO ESKAINTZAK**

- IKASLEAK - Ziklo Formatiboak
- LANGILEAK - Ikastaro Teknikoak
- LANTEGIAK - Neurrirako Ikastaro Teknikoak
- LANGABETUAK - Ikastaro Tekniko ezberdinak

Santa luzia, 17 • 20400 **TOLOSA**  
Tel.: 943 65 11 47  
[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com) [idadkaritza@tolosaldea.com](mailto:idadkaritza@tolosaldea.com)



Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna da. Aurten, Tolosan, Asteartitarekin batera tokatu da eta aldarrikapenek Inauteri kutsua hartuko dute.

# Aldarrikapena eta jaia Asteartitan

A. Belauntzaran-A. Imaz Tolosa

**M**ojen eskolan zeudenek ezin zuten kaleko jaiari parte hartu, martxoak 8a izanagatik ere. Leihotik kanpora begiratzea debekatuta zuten, festan deabrua, infernua eta bekakua ibiltzen zirelako. Denboraren leihotik begira jarriko bagina, mende erdi bat atzera eginaz, emakume gutxi ikusiko genituen moztorturirik Inauterietan. Parte hartzaileak gizonak ziren, musika banda, konpartsa, zezenketa eta danborradetan.

1980. hamarkadan ordea, emakumeak kalera irten ziren. Egitarau ofizialak lehengo itxura mantentzen bazuen ere, aldaketa nabarmenak bultzatu zituzten: Jai Batzordean sartu ziren; konpartsetan titular gisa agertzen hasi ziren; 1983n Emakumeen Danborrada osatu zuten eta 1987an, lehen aldiz, emakume batek botu zuten Inauteri hasierako pregoia, Kabi Alai elkartearen izenean.

Neska ederraren eta itsusiaren arteko esanahi hutsalak aldiz, 2000. urtera arte iraun zuten. Inauteriek monarkia alde batera utzi eta erregrina eta damen tituluak historiarako gelditu ziren.

## 'Ramos Azkarateren alaba gaiztoak'

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Aurten, Tolosako Inauterietako Asteartitan tokatu da. Bi datak bateratuz, eskualdeko emakumeak mojen deabru bilakatuko dira berriro ere

hilaren 8an. Emakumeak eta gizonak elkarrekin irtengo dira kalera, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin bat eginaz, Tolosaldeko Bilgune Feministak bultzatu duen konpartsaaren inguruan.

Karrozaren ideia Ramos Azkarate olerkari tolosarrak eman die. Inkisizio garaia gogoratuz, 1903an bertso hau idatzi zuen: «*Abajo las mujeres/deabruz josiak/ai hilda bazeundete/zeraten guztiak/Josafaten izango/ditugu auziak/han konponduko zaitu/goiko justiziak*».

Olerkariari ordea, ezusteko oinordekoak irten zaizkio bere jaioterriari: *Alaba gaiztoak*. Bilgune Feministatik emakume guztiak gonbidatu dituzte karrozaren parte hartzera: «*Datozela emakumeak burutik behera jarrita*». Ramos Azkarateren bertsoari erantzuna emango diote Asteartitan. Aldarrikapenak inauteri giroan egingo dira, txaranga eta txaranga artean. Bozgorailuetatik eskubideen urraketa eta genero indarkeriaren aurka eta berdintasunaren alde egingo dute.

Gune nagusia, Berdura plazan Ramos Azkarateren bustoaren ondoan edukiko dute bere alaba gaiztoak. «*Jende askok ez daki bertso honen berri eta emakumeon aurka honelakoak idaztea ikaragarria iruditzen zaigu. Ekarpenak egingo zizkion gizon honek Tolosako herriari, baina ederrak esan ere bai gure aurka eta hala ere bustoa dauka. Zenbat emakumeren bustoa dago Tolosan? Zen-*



Ramos Azkarateren olerki bat da Bilgune Feministaren konpartsaaren ardatza, bustoa Berdura plazan dago. A. IMAZ

bat kale emakumeen izenekin? Izango dira bada herri honetan esker ona merezi duten emakumeak. Non dago emakumeen presentzia kalean, eskultoretan. Tolosan ere badira emakume sortzaileak!» aldarrikapenez beteriko galderak karrozaren gainean joango diren Emakumeen Nazioarteko Egunean.

Asteartitan emakumeen aldeko aldarrikapenekin bat egin nahi duena, Bilgune Feministaren helbidera idaztea nahikoa dute, hain zuzen ere, [tolosaldeko.kobf@gmail.com](mailto:tolosaldeko.kobf@gmail.com)-era.

Pozik onartuko dute emakumeen indarra eta zergatik ez, baita gizonena ere. Eztarriak urratu artean egingo dituzte emakumeen eskubideen aldeko oihu aldarrikapen, bertso eta kantuak.

## 'Joka Sano'

Udaleko Berdintasun sailetik ere hainbat ekimen antolatuta dituzte azken hilabeteetan martxoaren 8ari begira. Horren adibidegarbia

da Inauteri ukitua eduki duen II. Aurrez Aurreko ekimena. Otsailaren 23, 24 eta 25ean Aramburu jauregian eta kultur etxean egin ziren. Antzerkia, performanceak, mahai-inguruak, Dragking eta Dragqueenen tailerrak, kontzertuak... beti ere, inauteri jaia eta generoa uztartuz.

Inauteriek egunerokotasuna apurtzen dute eta urte guzian ez garen hori izateko aukera ematen digute. Honela, generoz aldatzen gara, gizonak emakume eta emakumeak gizon. Baina hemen ere, alde dagoela azpimarratu dute emakumeen inguruan lan egiten duten eragileek: «*Gizonen feminitatearen barregarri uzten dute erabat, emakume eredu bat saltzen dute, baina beti ikuspegi matxistatik; titi handiak, gona motzak, ile horia, ezpain handia, ibiltzeko modua...*».

Hau dela eta, udaleko Berdintasun sailetik emakumeak gizonen moztortzera gonbidatu dituzte: «*Beraiek feminitatea lantzen du-*

ten moduan, maskulinitatea landuko dugu guk, honela guri egiten dizkigutenak beraiei eginez, nola sentitzen garen konturako baitira». Inauteriak antzerkia dira, besteren larruan sartu, beste rol bat hartu eta ez garena izatea, performancea da osoki. Baina beti ere errespetuzko jokoan. Jazarpenik eta indarkeriarik gabe eta zoritxarrez emakumeen aurkako erasoek ez dute etenik. Berdintasunekoek *Joka Sano* dioten pegatinak eta kartelak jarriko dituzte bazter guztietan ekintza sexistak ekidin asmoz. «*Inauterietan ere presente eduki behar dugu, jazarpen fisiko eta seksualak badirela eta hauek askotan ez dira zenbatzen, salatzeke geratzen baitira. Gizartea sentibilizatzeko Inauterietan irakur izango du jendeak mezua, *Joka Sano*» azaldu du Berdintasun Sailak.*

Beraz, aldarrikapenari inoiz baino gogorrago eutsi beharko zaio Inauteri hauetan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**www.tolosaldea.hitza.info**

herrietako informazioa inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegiadea.hitza.info](http://www.alegiadea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) •  
[www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info) • [www.leitzaldeko.hitza.info](http://www.leitzaldeko.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)



# Txikien gozamenarako

Imanol Garcia Tolosa

Mozorroen festa aurretik, Zalduneta Bezerako egitaraua txikientzako egina dagoela esan daiteke. Goizetik hasita, atzo haurrek izan ziren protagonista egunez izan ziren ekitaldietan.

Haurrek gozatu ederra, eta bertan zehar urburatzen ere hartu zuten dantzari txikien ekitaldian, erraldot eta buruhandietan eta arratsaldeko danborradan. Goizean zehar Alde Zaharresan magimendha zen nagusi. Eskualdeko hainbat herriko 20 dantzari txikiak kalejira kale botetik zihoran bitartean, beste batetik buruhandiak topatzen zituzten, hurrengoan erraldotek gora begira jartzen zituen eta beste kalean txarangak gorputza dantzan jartzen ziren.

Arratsaldean danbor hotsek San Frantzisko etorbidea, Triangulo plaza eta Pablo Gorosabel hartu zuten. Alde Orynta elbarrikoek gidatuta, herriko hiru ikastetxetako haurrek ederki astindu zituzten danborrak. Baina indarrak goitiko behar dituzte, aurretik urteko hiru egun berezientakoak baino baitituzte.



Andetza bitzen da Trianguloa plazan haurren danborradaren emanaldia ikusi eta entzuteko. I.GARCIA



Samaniego eskolako danbor-joleak eta kosaken dantza saioetako bat. I.GARCIA



Hirukide ikastetxeko danbor-joleak. H.TZ



Laskorain ikastolako danbor-joleak. I.GARCIA



Buruhandiak ibili ziren atzo goizean kalejiran. I.GARCIA



Dantzari txikiak kalejira ere izan zen atzo goizean. I.GARCIA



Erraldotek ere girotu zituzten Tolosa kaleak. I.GARCIA



Kabi Alai elkarteko txarangarekin ibili ziren saioetako herritarak. I.GARCIA

Benta Aldea industriagunea z/g 20270 Anoeta  
 Tel.: 943 654 025 • 943 650 352  
 Faxa: 943 652 653

## MATXINA

Etxekotresna elektrikoaren konponketa

Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34



Karroza guztiei Ferialekuko beraien txokotik ateratzeko garaia heldu zaie. ITZEA URKIZU

# Mozorroak ateratzeko ordua

15 karroza eta 310 konpartsa aterako dira Tolosako kaleetara. Musika, kolorea eta umorea jarriko dute

Astelenita egunean aisialdi taldeen txanda izango da; sei aisialdi talde aterako dira

## Erredakzioa Tolosa

Mozorroen urteko egunik handiena iritsi da. Azken hilabete, aste eta egunetan karrozak prestatzen aritu ostean, iritsi zaie kalera atera eta egindako lana erakusteko ordua. Zertaz jantzi eta nola jantzi; karrozak nola prestatu, egin, antolatu,... bezperako

eguna bitarte pasatako ordu guztiak merezi izan dutela sentitzeko unea da.

Arazoak eta une txarrak alde batera utzi eta ongi pasatzeko garaia da. Kalean gora eta kalean behera, umore ona eta alaitasuna trukatzeko; ongi pasatzeko.

Egun handia da Zaldunita. Mozorroak dira nagusi eta eurekin

batera, goizean goizetik hasi eta ordu txikiak bitarte luzatzen den jaia da. Tolosako Inauterietan era guztiak moztaroko moztaroko aukera izaten da.

11:00etan aterako dira karroza eta konpartsa guztiak. Konpartsek ez dute ibilbide jakinik izaten baina karrozak bi zatitan banatu eta batzuk goitik eta besteak behetik aterako dira.

Lehiaketa ere egiten da eta parte hartzaileen kopurua urtetik urtera goraka doa. Iazko datuak hobetuz, 15 karrozek eta 310 konpartsek eman dute izena. Lehiaketaren epaia, hilaren 11n (Piñata igandearen aurreko ostirala) arratsaldeko 19:00etan udaletxeko Batzar aretoan gauzatuko den

ekitaldian emango dute jakitera. Bertan emango zaizkie txapelak irabazleei.

## Aisialdi taldeen eromena

Atsedena, Kazkabarra, Kirikiño, San Bernardo, Ttentek eta Txiribitu dira. Eta begirale, guraso eta haur guztiek 1.200 lagun inguru mugitzen dituzte. Talde hauek dira Astelenitari bizia ematen diotenak.

Atsedena, *101 dalmata* filmako txakurrez eta Cruella de Vil irudikatuko dituzte. 90 bat kidez osatutako taldea da eta 6 urtetik hasi eta 20 urte bitartekoak ateratzen dira. Kazkabarrakoak, *Charles Chaplin* rol ezberdinetan erakutsiko dute: arrunta, langilea,

## ↓ Ikusmira

### KARROZAK ETA KONPARTSAK

- **11:00etatik aurrera.** Konpartsak eta karrozak kalera aterako dira.
- **Karrozak eta konpartsak.** 15 karroza izango dira eta bi taldeetan banatu dituzte. Erdiak goitik aterako dira eta beste erdiak behetik. Konpartsek ez dute ibilbide jakinik izaten.
- **Aisialdi taldeak.** Astelenita talde guztiak goitik aterako dira. Eurria egingo balu Usabal kiroldegian egingo dute.

polizia edo presoak. Sei urtetik hasita, 430 kide aterako dira guztira. Kirikiño taldekoak, *Alicia bitxikerien lurraldean* aukeratu dute. Bikiak, katuak, kapelak, erreginak, Alicia eta kartak izango dira protagonistak. 300 lagun dira eta kasu honetan, Lehen Hezkuntzako 5. mailatik hasi eta gurasoak arte aterako dira.

San Bernardo taldekoak, *Es-kaut amerikar uniformatuak* izango dira. 124 lagun aterako dira eta bertan azken 50 urte hauetan pasa diren adin guztiak partaideak izango dira. 50 urte horietan egin duten lana dela eta, Ostegun Gizen egunean, Inauterizale Kutun izendatu zituzten.

Ttentekoak, *Panpin etxea* egingo dute: txikiak gusiluz eta artzaz, ertainak dantzari eta berunezko soldadutxoak eta helduenak arlekin eta trapuzko panpinez jantziko dira. 220 lagun aterako dira eta 6 urtetik 40 urte inguru artekoak elkartzen dira. Eta azkenik, Txiribitu taldekoak, *Tetris-eko fitzak* izango dira: zutabeak, I-ak, T-ak, laukia eta L-a. 70 lagun dira eta 10 urtetik 17 ingura bitartekoak dira. Eurria egingez gero, Aisialdi taldeek Usabalen eskainiko dute Astelenitako beraien emanaldia.

## Irudia › Tolosa



# HIRUKIDEKO MARRAZKI BIZIDUNAK, BEOTIBARREN

Hirukide Ikastetxeak gogotsu atera ziren Ostegun Gizen egunean guztiak moztarotuta. Ostegun Gizona Hirukide Ikastetxeak modu berezian ospatzen du. Beotibarren jaialdi erraldoi bat egiten dute eta pilotaleku

guztia leporaino betetzen da, haur, irakasle eta gurasoekin. Aurtengo leloa *Marrazki bizidunak* izan dela adierazi dute eta bertara, Mickey eta Minnie, Bob Esponja, Hirukiak, Vicky Vikingoa, Popeye eta Olivia edo bitxi-

kerien lurraldeko Alicia hurbildu dira. Aurreko asteetan egindako lanak eta entseguak, gurasoen begien gozagarri izan ziren. Musika eta dantzarik ez zen faltatu Beotibar pilotalekuan. HIRUKIDEORG



Jubenil mailako partida jokatzen ostiralean, Beotibarren. I. GARCIA

## Aurrera Saiaz Berria Txapelketatik kanpo geratu da

Hiru partidetatik bi irabazi zituzten Doneztebeko pilotariek; finalerdietara pasatzea lortu zuten

**Erredakzioa** Tolosa

Ostiral Mehean Beotibar pilotalekuan jokatu ziren Berria Txapelketako final-laurdenak. Aurrera Saiazeko pilotariak, Doneztebeko Errekako pilotarien aurka aritu ziren eta hiru partidetatik bakarra irabazi zuten eskualdekoek.

Kadete mailan, Mujika eta Iru-retagoiena, Aurrera Saiazeko bikoteak erraz irabazi zuten Telle-txea eta Elizalderen aurka. Mar-kagailua 22 eta 7an utzi zuten. Jubenil mailan, Aurrera Saiazko Labaka eta Elustondok, Maia eta

Lasaren aurka jokatu zuten. Eta Doneztebearrek, 22-10 irabazi zieten eskualdekoek. Luis Galarraga Aurrera Saiazeko arduradunak ere partida horretan gehiago espero zuela esan zuen.

Nagusien mailan berriz, Onsalok, Telletxearekin beharrean, Zubirirekin jokatu zuen eta aurkariak Esain eta Gorriti izan zituzten. Galarragaren hitzetan «Gorritik oso partida ona jokatu zuen. Zubiri menperatzea lortu zuen eta Onsalok ez zuen partidari sartzeko aukerarik izan». 22-11 bukatu zen partida.

Ondorioz, Doneztebeko Errekak lortu du finalerdietarako txartela. Eta egun berean, Hernanin jokatu zen kanporaketan Zugarralderen aurka Uhartek irabazi zuen. Uhartek eta Errekaren arteko partidak, hilaren 19an jokatuko dira Beotibarren.

## Gizarte Segurantzaren RED sisteman euskaraz egitea debekatuta dago

UEMAko udal askok euskara dute lanerako hizkuntza bezala; urtarrilaz geroztik ezin dute euskarazkoa erabili

**Erredakzioa**

Gizarte Segurantzaren RED sistematik gero eta kudeaketa gehiago bideratzen ditu eta, abian jarri zenetik urte asko pasatu badira ere, gaur egun ez dago euskaraz, katalanez eta galegoz erabiltzerik. UEMAko udalek zein enpresa askok euskara dute lanerako hizkuntza bezala, «baina, kanpotik, euskaraz lan egiteko eta bizitzeko aukera hori ukatzen zaigu», argitu du UEMAk. Enpresa edo erakunde bakoitzean dauden langileei buruzko kudeaketa egin ahal izateko gaztelera erabiltzera behartuta daude.

UEMATik diotenez «gaur arte, zeregin horiek euskaraz egiteko aukera izan dugu. Hala ere, ez da erraza izan zeregin horiek euskaraz egitea, Gizarte Segurantzak ez dituelako beharrezko inprimaki asko euskaraz eskaini».

Duela urte batzuetatik RED sistema jarri dute abian, «baina indarrean jarri zenetik Gizarte Segurantzak ez du inolako ahaleginik egin eleaniztasunera egokitze» diote. Urtarriletik aurrera ezin izango da papera erabili, eta enpresa eta erakunde guztiak behartuta gaude gaztelania hutsean erabiltzera. UEMAren iritziz «eskubideak» direnez Gizarte Segurantzari eskaera egin dio.

## Irudia ◊ Tolosa



## UDABERRIKO LEHEN ZIZAK

Tolosa Inauterietan bete-betean egonagatik ere, larunbateroko azokak ez du hutsik egin. Ohiko isiltasuna apurtuz, postuak jartzen ari zirenek parrandazaleekin egin zuten topo. Eguraldia ere lagun izan zuten eta jendearen aldetik erantzun ona izan zen. Atzokoan gainera udaberriko lehen zizak saldu ziren Zerkausian. Fronton jateak erosi zituen Tolosara iritsi diren lehen zizak. HITZA

## → Laburrak

### Auto batek gizonezko bat harrapatu du

**IBARRA** ◊ Auto batek gizonezko bat harrapatu zuen atzo 09:20ak inguruan Ibarren. Ertzaintzak jakinarazitaokoaren arabera, istripua GI-2130 errepedeko 2. kilometroan izan zen Leitzako noranzkoan. Gizonezkoa artatzera ambulanzia bat joan zen Ibarra eta ondoren Donostia Ospitalera eraman zuten zauri arinekin.

### Ekomuseoa irekita egongo da 11:00etatik 14:00etara

**LARRAUL** ◊ Ekomuseoa irekita egongo da gaur 11:00etatik 14:00etara. Museoa hilabeteko lehen igandean irekitzen dute urte guztian zehar. «Inguruko jendeak interesa izan ez gero edota beste planik ezean, Larraulgo museoa, eliza, errota... ikusteko aukera du», azaldu dute Ekomuseoko arduradunek. Era berean, gogoratu behar da bertan ikastaro eta ekitaldi desberdinak burutzen dituztela, besteak beste, uken-du eta olio tailerra edo egur taila tailerra.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagarria izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Garraio publikoa**

**RENFE**

■ **Brinkola-Irun (Tolosako ordutegia):**  
11:36, 12:16, 13:16, 13:45, 14:16,  
14:55, 15:21, 15:51, 16:36, 17:11,  
17:51, 19:31, 20:13, 20:24, 21:01,  
21:50, 23:18, 01:00, 03:00 eta  
05:00.  
Trenak ez dira Apeaderon  
geldituko.

■ **Irun-Brinkola (Tolosako ordutegia):**  
10:43, 11:23, 12:01, 11:24:43, 14:20,  
15:18, 16:53, 17:33, 18:41, 18:43,  
19:13, 19:53, 20:33, 21:13, 23:16,  
03:10 eta 05:20.  
Trenak ez dira Apeaderon  
geldituko.

**TSST**

■ **23:00etatik 04:00etara or-  
duro.**  
ASTEASU- Zizurkil-Villabona-  
Irura-TOLOSA.  
■ **23:30etik 04:30era orduro.**  
TOLOSA-Anoeta- Irura-Villa-  
bona-Zizurkil- ASTEASU (San-  
ta Klaratik).  
■ **07:00etatik 16:00etara or-  
duro eta horretaz gain, 10:30,  
11:30 eta 12:30ean. 16:45etik  
20:45era ordu erdiro, azkena  
21:45ean. Ez da gaueko zerbi-  
tzurik egongo.**  
DONOSTI-Lasarte-Andoain-  
Villabona-Irura-TOLOSA.

■ **08:00etatik 16:00etara or-  
duro, eta horretaz gain 11:30,  
12:30, 13:30ean. 16:00etik  
20:30era ordu erdiro, azkenak  
21:15, 21:45 eta 22:45ean (La-  
sarte).**  
TOLOSA-Irura-Villabona- An-  
doain-Lasarte-DONOSTI.

**TOLOSALDEA BUS**

■ **00:00-02:00-03:30.**  
TOLOSA (Zumardi Txiki)-  
Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-  
Amezketeta-TOLOSA.  
■ **01:00-02:45-04:15.**  
TOLOSA (Zumardi Txiki)-  
Amarotz-Ibarra-Berrobi-El-  
dua-Elduain-BERASTEGI.

**HIRIBUSA**

■ **10:30, 14:30, 16:00 eta  
22:00etan.**  
Ibilbidea:  
ZUBI BERRIA- Usabal-indus-  
trialdea-Amarotz (beheko gel-  
tokian)-Kondeko aldapa-  
ZUBI BERRIA.

**Gora eta behera**



**BADAEZPADA ERE**

Pasa den urteetako esperien-  
tzia dela eta behar bada, aur-  
ten asteburuari eta Inauterie-  
tako egunik jendetsuenei be-  
gira denda askotako  
erakusleihoak estali dituzte.

Ez dira asko erakusleihoak  
edo dena delakoak puskatze-  
ra etortzen direnak, gehiago  
dira jaia egitera etortzen dire-  
nak, baina badaezpada den-  
darien aurrea hartu diete. I.G.

**EGUZKI PIXKA BAT**

Lehen egunetako euri eta  
hotzen ondotik, iritsi da az-  
kenean eguzkia. Martxoan  
izaki eguzkiak ez du gehiegi  
berotuko ere, baina behin-  
tzat eguzkia izango da gaur-

koan nagusi. Lehen karrozen  
eta moztaroen eguna da,  
eta beraz, eguraldi ezin  
hobeia izango da kalean  
moztar desberdinak ikus-  
teko. I.GARCIA



**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.**  
Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7.  
943 67 06 48.  
■ **Betelu.**  
Carrillo, A.  
Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.**  
Mutiloa, A. M.  
San Martin, 5. 112.

**BIHAR**

■ **Ibarra.**  
Ugarte, L. L.  
Euskal Herria kalea, 46.  
943 67 3274.  
■ **Leitza.**  
Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

TOLOSALDEKO ETA  
LEITZALDEKO HITZAK  
ez du bere gain hartzen  
egunkarian adierazitako  
esanen eta iritzien  
erantzukizunik.

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak**

1924  
**ECEIZA**  
T O L O S A

**TEILAK ETA ZIGARROTZOAK**

PABLO GOROSABEL, 34 • TEL.: 943 652089  
SAN FRANTZISKO, 8 • TEL.: 943 651916 • TOLOSA  
posta elektronikoa: [pasteceiza@euskalnet.net](mailto:pasteceiza@euskalnet.net)

**INAUTERIAK  
ONDO PASA!**